



Sareen sareea
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sarea
Red del Tercer Sector Social de Euskadi

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK ALDAKETA SOZIALAREN ERAGILE GISA ANTOLATUTAKO GIZARTE ZIBILARE PROTAGONISMOA ALDARRIKATUKO DU BILBON EGINGO DUEN JARDUNALDIAN

Hirugarren Sektorearen Behatokiak “Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria” aurkeztuko du ekitaldian. Sareen eta erakundeen etorkizuneko erronkei eta errealitateari buruzko txosten landua da

Euskadiko Hirugarren Sektoreak **abenduaren 11n** egingo du Bilboko BBK Aretoan Sareen Sarearekin (Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala biltzen du) eta Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiarekin batera antolatutako jardunaldia. Ekimen horrekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da azken erakunde horrek “Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria” aurkeztuko duela. Euskadin 3500 erakunde eta sare baino gehiago biltzen duen sektorearen errealitateari buruzko diagnostiko datatua lortzea ahalbidetzen duen ikerketa-lan sakona da.

Liburu Zuriak, zifrak eta datuak emanda, ekarpenari eta dimentsio ekonomikoari buruzko informazioa eskaintzen du sortutako enplegua eta Euskadiko sektore sozialaren partaidetza sozialaren egituraketa kontuan hartuta. Horrez gain, honako hauek aztertzen ditu: sektorearen harremanak kanpora zein barrura begira, kudeaketa-estrategiak, giza dimentsioa, jarduera, erabiltzen dituen baliabide ekonomikoak eta aldaketa soziala bultzatzeko eta interes orokorrari zerbitzua eskaintzeko helburua oinarri duen sektorearen nortasuna.

Hiru lurraldeetan dituen sareek eta erakundeek, gizarte zibilarren partaidetzarako bide izateaz gain, gizarte solidarioagoa, kohesionatuagoa eta barneratzaileagoa lortzen laguntzen dute. Horrekin lotuta, eguneroko lana ezintasuneko, bazterkeriako, babesgabeziako edo mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen eskubideak modu eragingarrian defendatzera, bultzatzera eta erabiltzera, eta haiei zerbitzuak eskaintzera bideratzen dute.

Ikerketa-lan horretan Hirugarren Sektore Sozialeko sareek eta erakundeek lagundu dute eta irabazi-asmorik gabeko sektore sozialaren errealitateari buruzko diagnostiko zehatzaz gain, etorkizuneko erronken eta orientazioen zerrenda ere jasotzen du.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialerako erabakigarria den unean gertatuko da ekitaldia. Izan ere, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Lege-proiektua izapidetzen ari dira Eusko Legebiltzarrean. Horren helburua Euskadiko sektoreari esparru juridikoa eta araudi mailakoa eskaintzea da eta ekimen sozialak partaide den komunitatearen ongizateari egiten dion ekarpen historikoa aitortzea ekarriko du berekin.



Sareen sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Sarea
Red del Tercer Sector Social de Euskadi

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



Liburu Zuria aurkezteaz gain, aipatu beharrekoa da Vicente Marbán, sozioekonomiako irakaslea, izango dugula bertan. Duela gutxi aurkeztu duten Espainiako Ekintza Sozialaren Hirugarren Sektorearen Azterketan hartu du parte eta Europako joeren ikerlari entzutetsua da. Oraingoan, bere hitzaldiaren gaia hau izango da: *“Hirugarren Sektorearen joera komunak EBN”*.

Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek eta sareek beren bizitasun eraldatzailea erakusten duten esperientzia batzuk azalduko dituzte.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Angel Toñak; Bizkaiko ahaldun nagusiak, Unai Rementeriak; BBK Fundazioko zuzendari nagusiak, Gorka Martínezek; EDE Fundazioko presidenteak, Javier Vitoriak; eta Sareen Sarea elkarteko presidenteak, Gonzalo Rodríguezek, hartuko dute parte jardunaldiaren inaugurazio-ekitaldian. Amaiera-ekitaldian, aldiz, Bilboko alkatea, Juan María Aburtu, izango da.

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia Hirugarren Sektorearen sustapen-programa bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta EDE Fundazioak sustatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin. www.3sbizkaia.org

Sareen Sarearen barruan daude Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko elkarteen sareak: EAPN-Euskadi, EHLABE, Elkartean, EUSKOFERDERPEN, FEDEAFES, FEVAS, Gizartea, Harresiak Apurtuz, Hirekin, Hirukide, Lares Euskadi, ONCE, REAS Euskadi. www.sareensarea.eu

Jardunaldiari buruzko informazio gehiago hemen:

www.jardunaldiaeuskadikohirugarrensektoresoziala.org

HARREMANETARAKO TELEFONOAK/E-MAILA:

-HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA; Pedro Beitia. 944009999-629755662.
pbeitia@fundacionede.org

-SAREEN SAREA: Mikel. 946569230-688875343 koordina@sareensarea.eu